## ALKATETZAREN DEKRETUA

**"BARAKALDOKO KARMENAK-2022" KARTEL LEHIAKETAREN DEIALDIA ONETSI DA (202200190 zenbakiko espedientea)**

Barakaldoko Udalbatzak, 2009ko azaroaren 16an egindako 28/2009 zenbakiko aparteko bilkuran, "Barakaldoko lehiaketa kulturalei buruzko Araubide Juridikoaren Arau Erregulatzailea" onartu zuen behin-behinean.

Behin-behinekoz onartutako akordioa jendaurrean jarri zen iragarki hau, 2009ko abenduaren 7ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu egunaren biharamunetik zenbatutako 30 egun baliodunez interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkez zitzaten, Toki-Araubidearen Oinarriek araupetzen duten apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2010eko otsailaren 4ko 973/2010 zenbakiko Dekretuaren bidez, Alkatetzak behin betiko onartu zuen aipatu araudia, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen testu osoa, 2010eko otsailaren 12an.

2016ko urriaren 14an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen aipatu araudiaren 3. eta 7. artikuluetan egindako aldaketaren behin betiko onarpena.

Barakaldoko Udalak saria banatzeko eta udalerriko jaiak sinbolizatuko dituen kartela lehiaketa bitartez eduki ahal izateko, "Barakaldoko Karmenak-2022" kartel lehiaketaren deialdia egitea erabaki du.

Araudiaren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, saria banatzeko prozedurari Alkate-lehendakari andereak onartutako deialdiaren bidez emango zaio hasiera.

Kontuan hartuz espedientea onartzeko bidezko diren legezko tramiteak, eta horien artean aldez aurretiko fiskalizazioari dagokiona, inolako erreparororik gabe jarraitu direla.

## DECRETO DE ALCALDIA

**APROBACION DE LA CONVOCATORIA DEL CONCURSO DE CARTELES “BARAKALDOKO KARMENAK-2022” (Expediente nº 202200190)**

El Ayuntamiento Pleno, en sesión extraordinaria número 28/2009, celebrada el día 16 de Noviembre de 2009, aprobó inicialmente la *“Norma reguladora del régimen jurídico de los concursos culturales de Barakaldo”.*

El acuerdo de aprobación inicial fue sometido a exposición pública mediante la inserción del oportuno anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, el 7 de Diciembre de 2009, a fin de que los interesados pudieran presentar cuantas alegaciones estimaran convenientes en el plazo de 30 días hábiles siguientes a dicha publicación, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 49 de la Ley 7/1985 de 2 de Abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, sin que se presentara alegación alguna.

Mediante Decreto de Alcaldía número 973/2010 de fecha 4 de Febrero de 2010, se declaró definitivamente aprobada la referenciada Norma, publicándose su texto íntegro en el Boletín Oficial de Bizkaia de fecha 12 de Febrero de 2010.

Con fecha 14 de octubre de 2016, se publicó en el BOB la aprobación definitiva de la modificación de los Artº. 3 y 7 de la citada Norma.

Queriendo el Ayuntamiento de Barakaldo conceder el correspondiente premio y disponer a través de la fórmula del concurso de un cartel simbolizador de las fiestas del municipio estima que procede acordar la convocatoria del “Concurso de Carteles Barakaldoko Karmenak-2022”.

Considerando que, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 7 de la Norma, el procedimiento para la concesión del premio se iniciará mediante convocatoria aprobada por la Ilma. Sra. Alcaldesa-Presidenta.

Considerando que, se han seguido los trámites legalmente procedentes para la aprobación del expediente y entre ellos la fiscalización previa sin que se hayan emitido reparos.

KONTUHARTZE AURRETIAZKOA / FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS / CONFORME



Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.
*Dokumentuak egiaztatzeko URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna):*
*https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sinatzailea / *Firmado por* | AMAIA DEL CAMPO BERASATEGUI (Alkatea / Alcaldesa) | | |
| | ALVARO LLORENTE CRESPO (Idazkari Nagusia / Secretario General) | | |
| | NEREA CANTERO GURTUBAY (Kultura, Hezkuntza, Euskara Eta Gazteria Arloa Zinegotzi Ordezkaria / Concejala Delegada Del Área De Cultura, Educación, Euskera y Juventud) | | |
| | JOSEBA IÑAKI SOBRINO ARANZABE (Kultur Zerbitzuko Burua Jefe Del Servicio De Cultura) | | |
| EKS(Egiaztatzeko Kode Segurua) *CSV(Código Seguro de Verificación)* | 6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e | Eguna eta ordua *Fecha y Hora* | 01/02/2022 17:22:35 |
| Erakundea/*Organismo* | psf.izenpe.com | Orrialdea/*Página* | 1/7 |

6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e

| | |
|---|---|
| Barakaldoko lehiaketa kulturalei buruzko Araubide Juridikoaren Arau erregulatzailearen 7. artikuluaren eta horrekin bat datozen artikuluen babesean, eta Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Alkatetza-lehendakaritzak honako hau | Al amparo del citado art. 7 y concordantes de la Norma reguladora del Régimen Jurídico de los Concursos Culturales de Barakaldo y a propuesta de la Concejala-Delegada de Cultura, Educación, Euskera y Juventud, esta Alcaldía-Presidencia |
| **EBAZTEN DU** | **RESUELVE** |
| **LEHENENGOA.-** "Barakaldoko Karmenak-2022" kartel lehiaketaren deialdi publikoa onartu da, eta Barakaldoko lehiaketa kulturalei buruzko Araubide Juridikoaren Arau erregulatzaileak (2010eko otsailaren 12ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua) araututako deialdia da. | **PRIMERO.-** Aprobar la convocatoria pública del concurso de carteles “Barakaldoko Karmenak”-2022, convocatoria que se regula por lo dispuesto en la Norma reguladora del Régimen Jurídico de los Concursos Culturales de Barakaldo, publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia, de 12 de febrero de 2010. |
| **BIGARRENA.-** Deialdirako gehieneko aurrekontua mila eurokoa (1.000,00 €) da, eta aurrekontuko 00700 33000 4810300 sailari dagokio. Sari bakarra emanez ebatziko da lehiaketa. | **SEGUNDO.-** El límite presupuestario de la misma es de MIL EUROS (1.000,00 €) con cargo a la partida presupuestaria 00700 33000 4810300. El concurso se resolverá mediante la concesión de un único premio de tal cuantía. |
| **HIRUGARRENA.-** | **TERCERO.-** |
| ***Parte-hartzaileak.-*** 18 urtetik gora duen edonork har dezake parte lehiaketan, betiere, lanaren ezaugarriei eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko beharkizunak betetzen badira. Egile bakoitzak gehienez bi obra aurkez ditzake eta originalak eta argitaragabeak izan beharko dira. | ***Participantes.-*** Podrán participar en el concurso cuantas personas físicas, mayores de 18 años, lo deseen, atendiendo a los correspondientes requisitos que se establecen en relación con la documentación a presentar y las características de la obra. Cada autor/a podrá presentar un máximo de dos obras que deberán ser originales e inéditas. |
| **LAUGARRENA.-** | ***CUARTO.-*** |
| ***Xedea*** Parte-hartzaileek beraiek aukeratutako gai eta teknikako kartelak aurkeztuko dituzte, koloretan. Obrak forma bertikala eta 70x50 cm izango ditu, nahitaez kartoi-luman kristalik gabe eta muntatua. Horrez gain, autoreak kartelaren JPG formatuko bi irudi (200 kb-ko bat eta MB 1eko beste bat) erantsi beharko ditu CD batean, baita bereizmen xeheko PDF bat ere, azken inprimaketaren tamaina izango duena. Gaia librea izango den arren, Barakaldoko Karmenen jaigiroa islatu beharko du obrak, eta, publizitaterako lagungarri izateaz gain, jai eta herriko irudia zabaldu beharko du. Halaber, ondorengo esaldiak eduki beharko ditu: | Objeto.- Los / as participantes deberán presentar carteles de tema y técnica libres, a color, en configuración vertical de tamaño 70x50 cm.. Deberá ir montado inexcusablemente sobre cartón pluma, y sin cristal. Además el/la autor/a adjuntará un CD con tres digitalizaciones del cartel, un JPG de 200 kb, otro JPG de 1 Mb y un PDF en alta resolución a tamaño final de impresión. El tema será libre, si bien deberá cumplir en su composición con el objetivo de reflejar el espíritu festivo de las Fiestas de Barakaldo “Barakaldoko Karmenak” con marcada orientación publicitaria y de promoción de las fiestas y la ciudad y deberá incorporar los siguientes textos: |
| **BARAKALDOKO KARMENAK 2022**<br>**UZTAILAK 9 – 17 DE JULIO** | **BARAKALDOKO KARMENAK 2022**<br>**UZTAILAK 9 – 17 DE JULIO** |
| Saritutako lana Barakaldoko 2022ko jaiak iragartzeko kartela egiteko erabiliko da, eta jai-egitarauaren azalean, bai eta bestelako komunikazio eta publizitate tresnetan ere agertuko da | La obra premiada constituirá el cartel anunciador de las Fiestas de Barakaldo de 2022 y servirá de portada del programa de fiestas, siendo utilizado en otros instrumentos de comunicación y publicidad de las mismas. |



KONTUHARTZE AURRETIAZKOA
FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS
CONFORME

**Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.**
*Dokumentuak egiaztatzeko URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna):*
*https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sinatzailea / *Firmado por* | AMAIA DEL CAMPO BERASATEGUI (Alkatea / Alcaldesa) | | |
| | ALVARO LLORENTE CRESPO (Idazkari Nagusia / Secretario General) | | |
| | NEREA CANTERO GURTUBAY (Kultura, Hezkuntza, Euskara Eta Gazteria Arloa Zinegotzi Ordezkaria / Concejala Delegada Del Área De Cultura, Educación, Euskera y Juventud) | | |
| | JOSEBA IÑAKI SOBRINO ARANZABE (Kultur Zerbitzuko Burua Jefe Del Servicio De Cultura) | | |
| EKS(Egiaztatzeko Kode Segurua)<br>*CSV(Código Seguro de Verificación)* | 6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e | Eguna eta ordua<br>*Fecha y Hora* | 01/02/2022 17:22:35 |
| Erakundea/*Organismo* | psf.izenpe.com | Orrialdea/*Página* | 2/7 |

6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e

| | |
|---|---|
| Saria eskuratu ahal izateko, parte-hartzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan behar dituzte deialdia ebazten den egunean. | Para poder conseguir el premio, los o las participantes, deberán estar al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social a la fecha de resolución de la convocatoria. |
| Ondorengo egoeratan daudenek ezin izango dute saririk irabazi: | No podrán obtener el premio las personas en quienes concurran las siguientes circunstancias: |
| a) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluak zerrendatzen dituen edozeinetan daudenek. | a) Cualquiera de las enumeradas en el Art.13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. |
| b) Administrazio- edo zigor-bidetik diru-laguntza edo laguntza publikoak ez lortzera zigortuta dagoen edonork edo horretarako ezgaitua izateko legezko debekua duen edonork. | b) Haber sido sancionadas administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas o estar incursas en prohibición legal que les inhabilite para ello. |
| **BOSGARRENA.-** | **QUINTO.-** |
| ***Emate-araubidea.-*** | ***Régimen de concesión.-*** |
| Norgehiagoka izango da saria emateko araubidea, eta horretarako, aurkezten dituzten lanak konparatu, eta guztien artetik bat aukeratuko da, aurrerago adierazten diren irizpideekin bat etorriz. Egileak saria eskuratzeko exijitutako edozein baldintza beteko ez balu, epaimahaiak bigarren lan bat hautatu, eta horren egileak eskuratuko luke saria. | El premio se concederá de acuerdo con el régimen de concurrencia competitiva, a través de la comparación de las obras presentadas, y la selección entre las mismas de una de ellas, conforme a los criterios que más adelante se señalan. Para el supuesto de incumplimiento por el autor de cualquiera de las condiciones exigidas para acceder al premio, el Jurado escogerá una segunda obra, cuyo autor accederá en tal caso al mismo. |
| Epaimahai bat izendatuko da, aurkeztu diren lanak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaian, arte plastikoetan adituak diren prestigio handiko hiru kidek parte hartuko dute, baita "Barakaldoko Karmenak" Udal Jai Batzordeko kide guztiek ere, eta, deialdi honek ezarritakoaren arabera, hiritarrek parte hartzeko bideren bat antolatuko da. | Para el análisis y evaluación de las obras presentadas se constituirá un Jurado integrado por tres profesionales de reconocido prestigio en las artes plásticas y todos los integrantes de la Comisión Municipal de Fiestas "Barakaldoko Karmenak" y que habilitará además un mecanismo de Participación Ciudadana en los términos que establece esta Convocatoria. |
| Epaimahaiak Batzorde delegatu bat sortuko du, adituek eta bi batzordekideek osatua, gutxienez hiru eta gehienez sei kartel aukeratzeko. Kartelak interneten eta herriko kulturguneren batean erakutsiko dira. | El Jurado constituirá una Comisión Delegada integrada por los profesionales de las artes plásticas y 2 miembros de la Comisión Municipal de Fiestas elegidos por ésta, que tendrán por objeto seleccionar un mínimo de 3 y un máximo de 6 carteles que serán expuestos al Público en algún equipamiento cultural del Municipio y en Internet. |
| Jarraian, zazpi eguneko epea zabalduko da, hiritarrek bozka dezaten. Epearen hasiera Udalak iragarriko du ohi diren komunikabideen bitartez. herritarrek beren iritzia adieraz dezaten, | A continuación se abrirá un periodo de votación popular de 7 días naturales de duración, cuyo inicio será divulgado por el Ayuntamiento a través de los correspondientes canales de comunicación a efectos de que se exprese el parecer de las y los vecinos y vecinas de la manera siguiente: |



KONTUHARTZE AURRETIAZKOA
FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS
CONFORME

**Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.**
*Dokumentuak egiaztatzeko URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna):*
*https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sinatzailea / *Firmado por* | AMAIA DEL CAMPO BERASATEGUI (Alkatea / Alcaldesa) | | |
| | ALVARO LLORENTE CRESPO (Idazkari Nagusia / Secretario General) | | |
| | NEREA CANTERO GURTUBAY (Kultura, Hezkuntza, Euskara Eta Gazteria Arloa Zinegotzi Ordezkaria / Concejala Delegada Del Área De Cultura, Educación, Euskera y Juventud) | | |
| | JOSEBA IÑAKI SOBRINO ARANZABE (Kultur Zerbitzuko Burua Jefe Del Servicio De Cultura) | | |
| EKS(Egiaztatzeko Kode Segurua) *CSV(Código Seguro de Verificación)* | 6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e | Eguna eta ordua *Fecha y Hora* | 01/02/2022 17:22:35 |
| Erakundea/*Organismo* | psf.izenpe.com | Orrialdea/*Página* | 3/7 |

6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e

- Clara Campoamor eta Gurutzetako Zentro Zibikoetan, aurrez aurre.
- eta Udal Facebookearen bitartez bozka emanez.

Epaimahaiaren azkeneko erabakian % 50 hiritarren bozketa hartuko da kontutan, bide bakoitzetik adierazitakoa % 25 bat delarik. Jai Batzordeak interneten bitartez bozkatutakoa alderatu ahal izango du, kartelen baten egilearen izena zabaldu bada eta horrek bozketan eragina eduki badu.

Jai Batzordekideen aparteko bozketak %50eko balioa edukiko du. Bozketa guztiak kontutan harturik Jai Batzordeak kartel-irabazlearen zenbakia aldarrikatuko du eta dagokion sobrea zabaldu egilearen datuak ezagutzeko.

**SEIGARRENA.-**

***Lanak balioztatzeko irizpideak.-***

Hauek izango dira lanak aukeratzeko eta balioztatzeko irizpideak:

| LANAK AUKERATZEKO ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK | Gehieneko puntuazioa |
|---|---|
| Adierazkortasuna eta Barakaldo eta bertako jaiak sinbolizatzeko eta gogorarazteko gaitasuna. | 40 |
| Diseinua eta koloreak. | 30 |
| Originaltasuna, elementuetan edo ikuspegietan. | 30 |

**ZAZPIGARRENA.-**

***Aurkeztu beharreko agiriak.-***

- Nortasun-agiri nazionalaren (NAN) edo, hala badagokio, atzerritarren identifikazio zenbakiaren (AIZ) fotokopia.

- votación presencial en los Centros Cívicos Clara Campoamor y Cruces
- votación a través del canal municipal en Facebook.

En la decisión final del Jurado, ponderará un 50% el parecer expresado en la votación popular, asignándose a la expresada por cada uno de los medios anteriormente descritos un 25%. La Comisión Municipal de Fiestas podrá dejar de ponderar el 25% derivado de la participación telemática en el caso de que se constate la divulgación de la identidad del autor de alguno de los carteles y que ésta haya podido tener incidencia relevante en la votación realizada.

La votación realizada independientemente por los miembros de la Comisión Municipal de Fiestas ponderará el restante 50% del total de la puntuación. Computadas las votaciones anteriores, la Comisión Municipal de Fiestas proclamará la elección del cartel con la numeración correspondiente y procederá a la apertura del sobre identificativo que contendrá los datos del ganador/a.

**SEXTO.-**

***Criterios de valoración.-***

Los criterios de selección y valoración de las obras serán los siguientes:

| CRITERIOS DE SELECCIÓN Y VALORACIÓN | Puntuación máxima |
|---|---|
| Expresividad y capacidad simbólica y evocadora de Barakaldo y sus Fiestas. | 40 |
| Diseño y colorido. | 30 |
| Originalidad en elementos o perspectivas. | 30 |

**SEPTIMO.-**

***Documentación a presentar.-***

- Fotocopia del Documento Nacional de Identidad, ( D.N.I.) o Número de Identificación de Extranjeros ( N.I.E. ) en su caso.



KONTUHARTZE AURRETIAZKOA
FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS
CONFORME

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.
Dokumentuak egiaztatzeko URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna):
https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do

| | |
|---|---|
| Sinatzailea / Firmado por | AMAIA DEL CAMPO BERASATEGUI (Alkatea / Alcaldesa) |
| | ALVARO LLORENTE CRESPO (Idazkari Nagusia / Secretario General) |
| | NEREA CANTERO GURTUBAY (Kultura, Hezkuntza, Euskara Eta Gazteria Arloa Zinegotzi Ordezkaria / Concejala Delegada Del Área De Cultura, Educación, Euskera y Juventud) |
| | JOSEBA IÑAKI SOBRINO ARANZABE (Kultur Zerbitzuko Burua Jefe Del Servicio De Cultura) |

| | | | |
|---|---|---|---|
| EKS(Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV(Código Seguro de Verificación) | 6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e | Eguna eta ordua Fecha y Hora | 01/02/2022 17:22:35 |
| Erakundea/Organismo | psf.izenpe.com | Orrialdea/Página | 4/7 |

6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e

| | |
|---|---|
| • Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren diruzaintzarekiko betebeharrak egunean dituelako erantzukizunpeko adierazpena. | • Declaración responsable de estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral y de las obligaciones con la Tesorería de la Seguridad Social. |
| • Pertsona edo erakunde eskatzaileari Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluak diru-laguntzak hartzeari buruz xedatzen duen debekurik ezarri ez diotelako erantzukizunpeko adierazpena. | • Declaración responsable de no hallarse la persona o entidad solicitante incursa en las prohibiciones para obtener subvenciones establecidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. |
| • Sexuan oinarritutako diskriminazioa dela-eta, eskatzailea administrazio- edo zigor-bidetik zigortu ez dutelako erantzukizunpeko adierazpena edo diru-laguntzak banatzeko deialdietan ezin parte hartzera zigortu ez dutelakoa. | • Declaración responsable en la que refiera que no están sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni sancionadas con la prohibición de concurrir a convocatorias de subvenciones. |
| Saria eskuratu ahal izateko beharrezkoa izango da "Hirugarrenen datuen dokumentua", behar bezala beteta, aurkeztea. (eskatzaileak aurretik aurkeztu badu, eta aldaketarik izan ez bada, ez du zertan ekarri). Agiria Barakaldoko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloan eskura daiteke. | Para poder acceder al premio, será preciso entregar un “Documento de datos de terceros” debidamente cumplimentado. (Salvo que se hubiese presentado con anterioridad y no se hubiesen producido variaciones en sus datos ). El Documento podrá obtenerse en el Área de Cultura, Educación, , Euskera y Juventud del Ayuntamiento. |
| **ZORTZIGARRENA.-** | **OCTAVO.-** |
| ***Aurkezteko lekua eta epea.-*** | ***Lugar y plazo de presentación.-*** |
| Lanak eta eskatutako dokumentazioa Barakaldoko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Droga-mendekotasunen Prebentzio Arloan (udaletxeko behe solairua, Herriko Plaza 1, 48901 PK) aurkeztu beharko dira 9:00etatik 14:00etara, baina Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluak ezartzen dituen bideak ere erabil ditzakete. | Las obras, junto con la documentación requerida, se presentarán en el Área de Cultura, Educación, Euskera y Juventud del Ayuntamiento de Barakaldo, ( Planta Baja de la Casa Consistorial, Herriko Plaza 1, C.P. 48901), de 9 a 14 horas, sin perjuicio de la potencial utilización de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |
| Deialdi hau argitaratu egunaren biharamunetik 2022ko maiatzaren 6ra artekoa, biak barne, izango da eskabideak aurkezteko epea. | El plazo de presentación de las solicitudes será el comprendido entre el día siguiente a la publicación de esta convocatoria y 6 de mayo de 2022, ambos inclusive. |
| Obrak aurkeztean ezin da egilearen izena agerian egon. Obra bakoitzari gutun-azal itxi bat erantsiko zaio. Gutun-azalaren barruan egilearen datuak agertu beharko dira (izena, adina, helbidea, herria eta telefono zenbakia) eta NANaren edo AIZaren fotokopia ere sartuko da. Datuak faltsuak badira, saria eskuratzeko eskubidea berez galdu eta deialditik baztertua izango da. | En la presentación de las obras, las mismas no podrán llevar el nombre del autor o autora de manera visible. Cada obra se acompañará de un sobre cerrado. En el interior del sobre se harán constar los datos del autor o autora; nombre, edad, domicilio, localidad y teléfono y se introducirá la fotocopia del D.N.I. o N.I.E. La falsedad en los datos implicará automáticamente la pérdida del derecho a la obtención del premio y la exclusión de la convocatoria. |



KONTUHARTZE AURRETIAZKOA
FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS
CONFORME

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.
*Dokumentuak egiaztatzeko URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna): https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sinatzailea / *Firmado por* | AMAIA DEL CAMPO BERASATEGUI (Alkatea / Alcaldesa) | | |
| | ALVARO LLORENTE CRESPO (Idazkari Nagusia / Secretario General) | | |
| | NEREA CANTERO GURTUBAY (Kultura, Hezkuntza, Euskara Eta Gazteria Arloa Zinegotzi Ordezkaria / Concejala Delegada Del Área De Cultura, Educación, Euskera y Juventud) | | |
| | JOSEBA IÑAKI SOBRINO ARANZABE (Kultur Zerbitzuko Burua Jefe Del Servicio De Cultura) | | |
| EKS(Egiaztatzeko Kode Segurua) *CSV(Código Seguro de Verificación)* | 6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e | Eguna eta ordua *Fecha y Hora* | 01/02/2022 17:22:35 |
| Erakundea/*Organismo* | psf.izenpe.com | Orrialdea/*Página* | 5/7 |

6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e

**BEDERATZIGARRENA.-**

Aurkeztutako obra guztiak edo hautatuko batzuk jendaurrean erakuts daitezke, Udalak erabakitako egun eta baldintzetan.

Egileek 2022ko urriaren 3tik azaroaren 30era bitartean erretira ditzakete saritu ez diren lanak Barakaldoko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arlotik. Epea amaitu ostean, erreklamatu ez diren obrak Udalaren esku geratuko dira, eta Udalak erabakiko du zer egin.

Aurrekoaren kalterik gabe, egileak dira beren obren jabe, irabazlea izan ezik, zeren eta Udalaren esku geratuko baita.

**HAMARGARRENA.-**

Lanak aurkezteak Udalari baimena ematea dakar lanak edo dagozkion argazkiak edo irudiak erabiltzeko, betiere, erakusteko baino ez denean. Udalak esleitzen duen saria ordaintzeko, ezinbesteko eskakizuna da Udalari bakarrik lagatzea egileei dagozkien jabetza intelektualaren eskubideen ustiapena, bost urtez, eta dagokion sariketaren bilduma egiteko materialak argitaratzeko, mugarik gabe. Aipatutako ustiapenak ez dakar lagatzaileari inongo ordainsari edo ordain gehigarririk ematea.

**HAMAIKAGARRENA.-**

***Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea.-***

Kartelak aurkezteko epea bukatzen denetik, hilabete bat izango da diru-laguntzak emateko prozedurari buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea.

Udalaren eskumenei kalte egin gabe, epaimahaiari dagokio deialdian ezarritakoa interpretatzea. Hartara, haien irizpideei jarraiki ebatzi behar du Udalak oinarriek aurrez ikusten ez duten egoera oro, lehiaketak behar bezala antolatzeko beharrezko erabaki guztiak onar baititzakete.

**NOVENO.-**

Las obras presentadas o una selección de ellas, podrán ser objeto de exposición pública en las fechas y condiciones que el Ayuntamiento determine.

Los autores o autoras podrán retirar los trabajos no premiados entre los días 3 de octubre y 30 de noviembre de 2022, en el Área de Cultura, Educación, Euskera y Juventud del Ayuntamiento de Barakaldo. Finalizado el plazo, las obras no reclamadas pasarán a poder del Ayuntamiento, que dispondrá de ellas como considere conveniente.

Sin perjuicio de lo anterior, las obras son propiedad de sus autores o autoras, a excepción de la premiada que pasará a ser propiedad del Ayuntamiento.

**DÉCIMO.-**

La presentación de las obras, conllevará la autorización al Ayuntamiento de la utilización de las mismas o de las correspondientes fotografías o imágenes a efectos meramente expositivos. Para el abono del premio, será requisito imprescindible la cesión en exclusiva al Ayuntamiento de la explotación de los derechos de propiedad intelectual que pudieran corresponder a los autores o autoras y ser susceptibles de la misma, por un período de 5 años y de manera indefinida en lo que hace a la edición de materiales recopilatorios de diferentes ediciones del concurso. De la explotación referida no devengaría retribución o compensación adicional alguna en favor del cedente.

**UNDECIMO**

***Plazo de resolución y notificación.-***

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento de concesión de subvenciones será de un mes, a contar desde la fecha de finalización del plazo de presentación de los carteles.

Corresponde al jurado, sin perjuicio de las competencias municipales, la interpretación de lo dispuesto en la presente convocatoria y así, cualquier situación no prevista en éstas será resuelta a criterio del mismo, pudiendo adoptar todos los acuerdos necesarios para el buen orden del concurso.



KONTUHARTZE AURRETIAZKOA
FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS
CONFORME

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.
*Dokumentuak egiaztatzeko URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna):*
*https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sinatzailea / *Firmado por* | AMAIA DEL CAMPO BERASATEGUI (Alkatea / Alcaldesa) | | |
| | ALVARO LLORENTE CRESPO (Idazkari Nagusia / Secretario General) | | |
| | NEREA CANTERO GURTUBAY (Kultura, Hezkuntza, Euskara Eta Gazteria Arloa Zinegotzi Ordezkaria / Concejala Delegada Del Área De Cultura, Educación, Euskera y Juventud) | | |
| | JOSEBA IÑAKI SOBRINO ARANZABE (Kultur Zerbitzuko Burua Jefe Del Servicio De Cultura) | | |
| EKS(Egiaztatzeko Kode Segurua) *CSV(Código Seguro de Verificación)* | 6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e | Eguna eta ordua *Fecha y Hora* | 01/02/2022 17:22:35 |
| Erakundea/*Organismo* | psf.izenpe.com | Orrialdea/*Página* | 6/7 |

6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e

| | |
|---|---|
| **HAMABIGARRENA.-** | **DUODECIMO.-** |
| ***Ebazpena jakinarazteko bideak.-*** Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 40.artikulutik 42.era ezartzen duenarekin bat jakinarazi behar dio Udalak ebazpena interesdunari. Alkatetza Dekretua udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren web orrian argitaratu behar du Udalak. | ***Medios de notificación.-*** La concesión del premio se notificará al interesado/a de acuerdo con lo previsto en los artículos 40 a 42 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. El Decreto de Alcaldía de concesión será objeto de publicación en el Tablón de Anuncios y en la página web del Ayuntamiento. |
| **HAMAHIRUGARRENA.-** | **DECIMOTERCERO.-** |
| ***Errekurtsoa aurkezteko bideak.-*** Ebazpenak amaitutzat emango du administrazio-bidea, eta, haren aurka, berraztertzeko aukerako errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute eskatzaileek alkate udalburuaren aurrean, hilabeteko epean ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dute administrazioarekiko auzietarako epaitegian, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 8. eta 10. artikuluek ezartzen duten eskumen-banaketarekin bat, bi hilabeteko epean jakinarazpena hartu eta hurrengo egunetik. | ***Vías de recurso.-*** Contra la resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse Recurso Potestativo de Reposición ante la Alcaldesa Presidenta, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación de la misma, o bien directamente Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en virtud de la distribución de competencias prevista en los artículos 8 y 10 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa en el plazo de 2 meses contados, igualmente, a partir del día siguiente a la recepción de la notificación. |
| **HAMALAUGARRENA.-** MILA EUROko (1.000'00 €) gastua baimendu du Udalak, aurrekontuko 00700 33000 4810300 sailaren kontura. | **DECIMOCUARTO.-** Autorizar el correspondiente gasto por importe total de MIL EUROS ( 1.000,00 €) con cargo a la partida presupuestaria 00700 33000 4810300. |
| **HAMABOSGARRENA.-** Ebazpen hau Fondoen Kontu Hartzailetzari jakinarazi behar dio Udalak, eta Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arlora itzuli behar dio. | **DECIMOQUINTO.-** Notifíquese esta resolución a la Intervención Municipal de Fondos y devuélvase el expediente al Área de Cultura, Educación, Euskera y Juventud. |
| Barakaldoko Udal Goreneko Alkate andreak agindu eta sinatu du, inskripzio zigiluan adierazitako datan, eta Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloko zinegotzi ordezkariak eta Kulturako zerbitzuburuak ere izenpetu dute. | Lo manda y firma la Sra. Alcaldesa en la Casa Consistorial del Iltre. Ayuntamiento de Barakaldo, en la fecha señalada en el cajetín de inscripción, siendo suscrito por el Jefe de Servicio y la Concejala-Delegada del Area de Cultura, Educación, Euskera y Juventud. |

Dekretu honek ez du baliorik izango, baldin eta ez badu Udal Idazkaritzan horretarako dagoen Alkatetzako dekretu- eta ebazpen-liburuko inskripzioari dagokion laukia eta prozeduran interesa duten hirugarrenei egindako trasladoen Udal Erregistroko agirien Irteera zigilua.
El presente Decreto no será válido si no lleva incorporado cajetín de inscripción del mismo en el libro de Decretos y Resoluciones de la Alcaldía, obrante al efecto en la Secretaría Municipal de Salida de documentos en los traslados a terceros interesados en el procedimiento.

KONTUHARTZE AURRETIAZKOA
FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS
CONFORME



**Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.**
*Dokumentuak egiaztatzeko URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna): https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sinatzailea / *Firmado por* | AMAIA DEL CAMPO BERASATEGUI (Alkatea / Alcaldesa) | | |
| | ALVARO LLORENTE CRESPO (Idazkari Nagusia / Secretario General) | | |
| | NEREA CANTERO GURTUBAY (Kultura, Hezkuntza, Euskara Eta Gazteria Arloa Zinegotzi Ordezkaria / Concejala Delegada Del Área De Cultura, Educación, Euskera y Juventud) | | |
| | JOSEBA IÑAKI SOBRINO ARANZABE (Kultur Zerbitzuko Burua Jefe Del Servicio De Cultura) | | |
| EKS(Egiaztatzeko Kode Segurua) *CSV(Código Seguro de Verificación)* | 6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e | Eguna eta ordua *Fecha y Hora* | 01/02/2022 17:22:35 |
| Erakundea/*Organismo* | psf.izenpe.com | Orrialdea/*Página* | 7/7 |

6c75cb46-845a-4a7f-8a91-8322bec9c66e